

# Qatar 2022: esklaboek eraikitzen dute mundiala

Hiri ultramodernoak basamortuan? *The Guardianek* azaldu du mirariaren trikimailua: Qatar erresuma petrolioduneko ugazabek India, Nepal eta beste urrunetatik eramandako milaka langile esklabotzan darabilzkite 2022ko mundu mailako futbol kopa jokatzeko azpiegituren eraikuntzan. Egoera aldatu ezean, 4.000 obrerok galduko du bizia lanean.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

DOZENAKA LANGILE NEPALDAR hil dira aste gutxiko tartean Qatarren eta milaka gehiagok jasaten dituzte lan eta bizi baldintza penagarriak, Qatarrek 2022an mundu mailako futbol txapelketa bertan jokatu dadin eraikitzen dituen azpiegituretako lantegietan.

Hitzokin hasi du “*Qatar’s World Cup slaves*” kronika Pete Pattisonnek *The Guardian* egunkarian. Futbolarren sehaska izan den Britainia Handian arrabots pixka bat zabaldu du albisteak. Goizero San Mames Barriako obren, Errealeko jokalariren baten zaintiratuaren edo Osasunaren azken larrialdiaren zalaparta artean gosaltzen dugunok arreta pittin bat jarri behar genioke.

Uda honetan ia egunero hil da langile bat Qatarreko xantierretan. Horietako asko gazteak eta ofizialki bihotzeko atakez. Pattisson kazetaria Qatarreko Doha hiriburuan ibili da mundu osoko sindikalistek salatuakoak egiak ote diren ikertzen. Arabiar Golkoko basamortuetan hitatzen diren obreroen jaioterrian ere izan da, Nepalen. “*Qatar: the migrant workers forced to work for no pay in World Cup host country*” bideoz hornitu du idatzizko kronika.

Internetez eskuragai dagoen dokumentuan, 4 minutu gehi 24 segundo pasatakoan, kazetariak gaez iristen dira Nepaleko Dang

distrituko herrixka batera, furgoneta zuri bati segika. Iritsita, gizonak deskargatuko dute zerraldoa, emakumeen nigar eta garraisien artean. Ganesh Bishwakarmaren gorpua beilatu behar dute.

16 urte besterik ez zuela joan zen Ganesh Qatarreko. Gutxieneko adina ez zeukanez, paper faltsuak egin zizkieten emigratu ahal izateko. Harentzako, Nepaleko beste laborari- seme askorentzako bezala, zerua izan behar zuen Qatarrek, sorterrian utzitako familiari laguntzeko balioko zion *Eldorado* moderno. Sei asteren bueltan hilotz etxeratu dute.

Amaren ondoren aita mintzatu zaie kazetariei, galdutako semea ibai ertzean egur pila baten gainean erretzerakoan. “Gure semeak osasun ederra eduki du beti, ez tul bat ere ez du egin. Zerk gaixoarazi du? Klimak? Beste zerbaitek? Galderok estutzen didate bihotza, gau eta egun”. Eta aurreraxeago: “Ez dakit nola pagatu ahal izango diedan egindako zorra. Dirua laga zigute nek ez digute zorra barkatuko”.

Herriz herri joaten dira kontratatzaileak atzerrirako gazte bila. Lana agintzen diete urrutian, baina kontratuaren eta bidaia egiteko gastuen truke dirutza eskatuz. 16 urteko Ganesh mutikoari 20 urte zeuzkala zioten paperak eta bidaia

*Arabian Bussiness* aldizkariaren gunetik hartu irudian, Nepaletik iritsitako langileak Qatarreko basamortuan eraikitzen ari diren Lusail hiri berriko obren artean. Nepal, India, Filipinak, Bangladesh, Pakistan... urrundik heldutako langileek mugiarazten dute munduko herrialderik aberatsenetakoa den Qatarren ekonomia. Nazio Batuen Erakundeak plazaratzen duen Giza Garapenaren Indizean herrialde arabiarren artean buru dago Qatar. Ekialde Hurbileko geopolitikan berak hartu nahi du nagusitasuna, AEBen bazkide berezia, Libiakotik hasita Siriakoraino krisi guztietan esku hartuz, Al Jazeera katearekin mundu osoan eraginez. Aldiz, inperio ametsak dauzkan qatartarrak langile atzerritarrak darabiltza erakunde askok esklabotza eta lan bortxatutzat dauzkaten baldintza gogorretan: ordutegi luzeegiak, jornal txikiegiak, paperik gabe bahu gisan erabiliak, jipoi eta tratu txarrak, segurtasunik eza...

antolatu zion *broker*-arekin, Qatarren garbiketa atalean eskuratuko omen zion enpleguaren esperantzaz, 150.000 rupiako zorra hartu zuen familiak bere gain. 1.111 euro derrigor itzuli beharrekoak, %36eko interesa eraginez urtean. 1.111 euroko zorra itzuli? Nepalen eraikuntzan ari den obreroak egunean 2-3 euro irabazten du, ostalari-tzan ari denak 0,75 euro...

## 4.000 langile hil daitezke

Urtero Nepalek dauzkan 26,5 milioi biztanleetatik 400.000 doaz Himalaiatik urrun lan bila. Hareazko Qatarreko iritsitako dira horietatik 100.000z goiti.

1970ean 111.133 biztanle zeuzkan Qatarrek 2013an 1,9 milioi dauzka. Ezinezkoa da ugalketa hori alimaleko immigrazio bat gabe. Qatartarren %15 baizik ez da bertakoa eta hurbileko herrialde arabiarretatik iritsiak %13 gehiago. Gainerako guztiak, urrutikoak. Indiakoak (%24) bertakoak baino gehiago dira, Nepaletik iritsiak (%14) ere bai. Ondoren datoz Filipinetakoak, Bangladeshekoak eta beste.

Lurpean oraindik ugari daukaten petrolioari esker, basamortu idorra baizik ez zen Qatarren hiri modernoetako eraikin eta bestelako azpiegiturak altxatu dituzte urte-



kentzea ohikoa da; ez pasaportetik eta ez bestelako identifikazio kartarik gabe, ezin dira kalera irten, are gutxiago beste enpresa batera jo lan eske, estralurtarrak baino ilegalago.

Lan baldintzarik gogorrenetara bortxaturik daude menditarrok, termometroak 50°C gainditzen duen giroan. Kazetariak bildu ditu ura eta janaria ukatu zaien lekukotasunak.

Bizilekutzat dauzkate Mendebaldean animalientzako onartuko ez liratekeen egoitzak. Gela batean dozenatik gora lagun batera, labezomorroz eta euliz betetako jantoki zikinak, izen hori merezi ez duten sukaldeak. Ez da harritzekoa baldintza horietan asko gaixotzea.

*The Guardian*ek elkarrizketatu ditu dirurik eta paperik gabe, Qatarretik irten ezinean, Dohako enbaxadan babesturik, noiz etxeratuko zain dauden 30 nepaldar ere. Eskandalua suturik, Qatarreko mandatariek agindu dute esku hartuko dutela. Baina oraingoz Aidan McQwade Anti-Slavery Internationaleko zuzendariak esan duenez “kontua ez da gerta litekeela munduko kopa esklaboen lanean oinarritzea: dagoeneko gertatzen ari da”.

2022 artean Qatarrek gastatuko ditu 100.000 milioi dolar baino gehiago eraikitzeko bederlatzi futbol estadio berri, aireportu berria (Emirrentzako terminal berezi eta guzti), autopista Bahrainekin lotzeko, abiadura handiko tren, metro sarea eta 29 hotel berri. Munduko koparen finala Lusail bataiatu den hiri osorik berrian jokatuko dute. ■



tan ekarritako etorkinek. Orain hango indar ekonomikoek eskuartean dauzkaten garapen proiektuen artean izar eta ikurra 2022an bertan jokatuko diren munduko futbol koparen instalazioak dira: estadioak, hotelak, errepideak...

Ondoko urteetan milioi bat etorkin hartuko ditu Qatarrek batzuen kalkuletan. Prestaketa lanetan, agintariak ez badituzte eraikitzaileak eta hauen kontratistak arrastoan sartzen, 4.000 langiletaraino hil daiteke, Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioak (ITUC ingelesezko sigletan, CSI gaztelaniazkoetan) salatu duenez.

Txirotasunetik ihesi nahian, Nepaletik lan bila atera nahi dutenek galdera gutxi egiten dute eta zor

handiak hartzen beren gain. Golko edozein herrialde dolarrez usteldutan aurkituko dutena lehendik azaldua du hamaikatzok. Roy C. Raphael kazetariak “*Slaves of Saudis: Terrorisation of foreign workers*” liburuan kontatu du langile indiarren bizimodu mixerabilia Saudi Arabian. NET HURBIL honek 2007an egin zion oihartzuna Dubaik orduan ezagutu zuen greba gogorrari: “*Dubaibilonia: langileak greban hiri futuristan*”. Geroztik gauzak ez dira hobetu, hainbeste milioika jende dago biziraun nahian esklabotza onartu beste aukerarik...

*The Guardian*ek aurkitu ditu Doha eta inguruetan hilabetetan kobratu ez duten langileak, nagusiek soldata gorderik. Kontratistek pasaportek



**ZINKUNEGI**  
**OPTIKA**

**Garantia.**

**Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.**

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

